

Fun Dantz! Jaialdiak kale dantzak eszenatokian eskainiko ditu bigarren urtez. Aretxabaletako Udalaren eta BreakOnStage jaialdiaren arteko elkarlanarekin antolatu da. Aretxabaletako Kiroldegian ospatuko da Martxoaren 7an 19:30etatik aurrera. Iaz 600 ikusle bertaratu ziren eta aurtengo ere Fun Dantz Euskal Herriko kale dantzen talde onenen koreografiak itzuliko da.

Fun Dantz! Jaialdiak taldeei baliabide teknikoak eta marko eszenikoa eskaintzen die beraien ikuskizunak modu eszenikoan eskaini ditzaten: eszenatokia, argiak, musika eta proiektzioak. Modu honetan aurtengo 34 taldek parte hartuko dute, gehienez 3 minututako koreografiak eskainiko dituzte. Talde hauek 4 kategorietan sailkatzen dira:

- **Junior:** 15 urtetik beherako gazteen ikuskizunak. Euskal Herriko 8 taldek izena eman dute eta txikiak dituzten habileziak agerian jarriko dituzte. BreakOnStage jaialdirako sarrerak emango zaizkie parte-hartzaileei.
- **Bikoteka:** Dantza estilo anitzak taularatuko dira: hip-hop, garaikidea, urban dance, esperimentalak... 9 bikotek parte hartuko dute. Bikote irabazleak 150€ jasoko ditu eta bigarrenak 75€.
- **Breakdance:** 3 breakdance taldek parte hartuko dute eta sari nagusia BreakOnStage jaialdian parte hartzeko aukera izango da. Lehenengo taldeak 300€ eta bigarrenak 150€ jasoko ditu, baita irabazle garaikur txapelak ere.
- **Urban Dance:** 14 taldek parte hartuko dute. Horietatik bi taldek BreakOnStage jaialdian parte hartuko dute. Lehenengo taldeak 300€ eta bigarrenak 150€ jasoko ditu, baita irabazle garaikur txapelak ere.

Aurtengo, berrikuntza bezala, publikoaren saria ere banatuko da. Jaialdiaren azken txanpan, ikusleak mugikorraren bidez gustokoen izan duen taldea saritu ahal izango du. Ikuskizunean bertan emango dira bozkatu ahal izateko argibideak. Irabazleak BreakOnStage jaialdirako sarrerak irabaziko ditu.

Guztira, 175 dantzarik parte hartuko dute bi ordu iraungo duen ikuskizunean eta talde ia guztiak mistoak dira. Euskal Herriko hiri eta herri askotatik etorriak, Donostia, Bilbo Gasteiz, Iruñea, Irun, Basauri, Eibar, Lasarte, Durango... Ikuskizunaren lehenengo atalean Junior eta Bikotekako taldeak parte hartuko dute, 19:30etatik aurrera. Bigarrenengo Breakdance eta Urban Dance taldeak.

Sarrerak, egunean bertan leihatilan erosita 3€tan daude, aurrez erosita (Arkupe Kultur Etxean) 2€tan.